



(abajo en castellano)

STEE-EILAS sindikatuak erabateko gaitzespena adierazi nahi dio Hezkuntza Departamentuan euskararen erabilpena arautzen duen 206/2011 FORU AGINDUari.

UPN-PSN alderdiek onartutako Foru Agindu honek bere egiten du UPNko aurreko kontseilariak hartutako erabakia, eta agintzen du " Hezkuntza Departamentuko unitate organikoek formula elebiduna erabiltzen dutenean euskarri ezberdinak erabiliko dira euskara eta gaztelaniarako". Gauzak honela, inprimaki, zigilu, jakinarazpen, publikazio, publizitate, komunikazioetan ... **bi hizkuntzetan batera egitea debekatuta dago**, eta egiten diren ziurtagiri, publizitate kanpaina, inprimaki ofizial, bikoizturik eginen dira. Hezkuntza kontseilariak emaniko agindu honetan bere ahalmena mantentzen du onartzeko " forma elebiduna euskarri berean , hori justifikatzen duen egoera berezietan".

Foru Agindu honen onespena azaroren 3an izan da , ahula den Euskararen Legearen 25. urteurrena hilabetea falta denean. Lege murriztaile honen ondorioz milaka haur nafarrek ezin izan dute euskaraz ikasi eskola publikoetan, eta hainbat herritako eskola txikiak desagertu dira ez baitute D eredia eskaintzerik izan.

UPN-PSN Gobernuak euskarri berean bi hizkuntzen bizikidetzeta, nonbait, ez du gustuko, eta gastu bikoitza egitea ez zaio oraingo honetan inporta, eta murrizketa garai honetan ez zaie batere inporta gastu bikoitza egitea publizitatean, errotulazioan, zigiluetan... dena da zilegi Nafarroako errealitate linguistikoa ezkutatzeko. Austeritate politikak orain ez du lehentasunik.

Parlamentuko talde politikoei dei egiten diegu Euskararen Legeari aldaketa sakona egiteko, eta , besteak beste, Nafarroako gurasoek beren seme-alabak euskaraz eskolaratzeko eskubide izan dezaten, Nafarroako edozein herritan bizi direlarik ere. Era berean, euskararen bazterkeria hau gaitzesten dugu, ez gatoz inola ere bat hizkuntza paisaiatik kentzeko asmoarekin.

Nafarroako Gobernuari Agindu Foral hau baztertzeko eskatzen diogu, eta nafarrekin duen komunikabideetan euskarri bakarrean agertzeko bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, elebiduna den komunitatearekiko errespetuagatik.

STEE-EILAS
2011ko azaroa



El sindicato STEE-EILAS quiere manifestar su total desacuerdo con la ORDEN FORAL 206/20011, de 3 de noviembre del Consejero de Educación, por la que se dictan instrucciones relativas al uso del euskera en el ámbito del Departamento de Educación.

Esta Orden Foral realizada por el gobierno UPN-PSN hace suya la decisión del anterior Consejero de Educación de UPN, y ordena que "en aquellos casos en los que las unidades orgánicas del Departamento de Educación se utilice la forma bilingüe en las actuaciones administrativas, ésta debe llevarse a cabo en **soportes físicos separados para el castellano y el vascuence**". De esta manera queda prohibido que los rótulos, señalizaciones, impresos, publicidad... se realicen en ambas lenguas conjuntamente, debiéndose de este modo duplicar tanto la expedición de títulos, publicidad, impresos oficiales... En esta Orden Foral el Consejero se guarda la posibilidad de poder autorizar " la utilización de la forma bilingüe en un único soporte, cuando ocurran circunstancias especiales que así lo justifiquen"

La aprobación de esta Orden Foral se realiza justo un mes antes del 25 aniversario de la raquítica "Ley del Vascuence", la cual ha imposibilitado que miles de navarros y navarras hayan podido recibir una educación pública en euskera. Del mismo modo ha llevado a la desaparición de pequeñas escuelas rurales ante la imposibilidad de poder ofertar el modelo D (en euskera con castellano como asignatura).

A este Gobierno de UPN y PSN parece molestarle la convivencia de ambas lenguas en el mismo ámbito, y prefieren hacer un gasto doble en publicidad, rotulación, sellos... antes que dar una imagen de una comunidad bilingüe. ¿Dónde queda la política de austeridad? ¿Dónde queda el respeto a la realidad lingüística de Navarra?

Hacemos un llamamiento a los grupos de la Cámara a que realicen una profunda reforma de la Ley del euskera, para que ésta, entre otras, garantice el derecho de los padres y madres a escolarizar a sus hijos e hijas en euskera, independientemente de la localidad donde vivan. Asimismo, rechazamos la intención de relegar el euskera a un soporte aparte, cuyo última finalidad es hacerle desaparecer del paisaje lingüístico.

Pedimos al Gobierno de Navarra la rectificación de esta Orden Foral, y que las comunicaciones con la ciudadanía en general, y con los docentes en particular, se realice en un único soporte, en euskera y castellano, por respeto a una Comunidad bilingüe.

STEE-EILAS
Noviembre de 2011